

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
0 positibo berri	0 hildako	1 PCR positibo berri	0 hildako
2.313 positibo guztira*	1.553 hildakoak EAEn	5.300 PCR positibo guztira	64 ospitalizatuta
*Hernanin 60 Astigarragan 20		Sendatuak EAEn:16.656; Naf: 6.270	

## Aiotzategi kaleko 4garren zenbakian dauden alokairu sozialeko behin-behineko zerrendak, argitaratuta

Astigarragako Aiotzategi kaleko 4garren zenbakian dauden alokairu sozialeko 7 etxebizitzetarako eskaera guztiak aztertu ditu Astigarragako Udalak, eta behin-behineko zerrenda argitaratu du.

### ASTIGARRAGA ALOKAIRU SOZIALAK

Astigarragako alokairu sozialeko izena eman duten guztiei, udalak gutun bat helarazi die, eta eskaera bakoitzari, «zenbaki bat esleitu» zaiola jakinarazi du udalak. Hori horrela, gutunaren bidez, jakinaraziko zaio eskaerazaleari zein den bere zenbakia. Zenbaki hori gainera, zerrendan kontsultatuz, jakingo du eskaerazaleak, zein den bere eskaeraren egoera; hau da, «onartua edo baztertua izan den». Onartua izan bada, zein kupotan sartuko den, eta baztertua izan bada zein izan den baztertzeko arrazoia ere azalduko da.

Erreklamazio epea irekita dago, eta udalak azaldu du, beharrezkoa jotzen dutenek idazki bat aurkeztu dezaketela, Erregistro bulegoetan, «beha-

rrezkotzat jotzen diren frogagiri guztiekin batera».

### Astigarragako Udalak, ebatzita

Eskatzaile guztiei jakinarazi nahi die Udalak, aurrerantzean egiten diren komunikazioak udalaren webgunean eta iragarri taularen bidez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bidez eta SMS mezuen edo mezu elektronikoen bidez egingo direla.

Aipatu moduan, eskatzaileari heltzen zaion gutunean, jakinaraziko da zein zenbaki esleitu

**«Erreklamazio orriak idazki batean jasota aurkeztu beharko dira»**



Argitaratu dira, Aiotzategi kaleko 4garren zenbakian dauden alokairu sozialen behin-behineko zerrendak.

zaion, eta «zenbaki hori izango da erreferentzia gisa adieraziko dizugun elementu bakarra Bbes Ofizialeko Etxebizitzaren zozketarako zure eskaerari buruz egingo den edozein jakinarazpen eta ebazpenerako».

Horrez gain, «hamabost egun

balioduneko epea irekitzea, eraginpekoek beren eskubideak defendatzeko egokitzen hartzen dituzten erreklamazioak egin ditzaten». Erreklamazio hori idazki batean jasota aurkeztu beharko dute Udal Erregistroan, adierazitako arrazoia indartze-

ko beharrezkotzat jotzen diren frogariri guztiekin batera.

### Behin-behineko zerrenda, webgunean

Hemen ikusgai, onartu eta baztertuen behin-behineko zerrenda: <https://labur.eus/Oqq6L>. K

## Kontzentrazioarako deia luzatu da gaur arratsalderako, gertatutako eraso sexualak salatzeke asmotan

Azken urteetan «Hernaniko gizon gazte batek egindako eraso berri» jaso da, eta hau salatzeke, gaur kontzentrazioa egingo da.

### HERNANI BERDINTASUNA

Gaur arratsaldeko 19:00etan, kontzentrazioa egingo da Tilosetan, orain arte gertatutako eraso sexualak salatzeke asmotan. Izan ere, Hernaniko Koordinadora Feministak, azken urteetan Hernaniko gizon gazte batek egindako eraso berri jaso izan du, eta «dagoeneko 3 eraso se-

xual oso larriren berri izan dugu» jakinarazi du. Hori horrela, Hernaniko Koordinadora Feministak eraso hauen aurrean «haserrea» azalarazi du, eta gaur arratsalderako, kontzentrazioa antolatu du, aipatu moduan, gertatutako eraso sexualak salatzeke asmotan. Bertaratzeko deia luzatu du eta «zarata egiteko tresnak» eramateko eskakizuna ere egin du. K



Gaur arratsaldeko 19:00etan izango da kontzentrazioa Tilosetan.

**AKELENEA**  
Erregeia - XIX Mendeko Sagardotegian

**Koldoeta Ana**

Astehenetik ostiralera menua, bertan eta eramateko.  
Arratsaldeetan terraza 20:30ak arte.

Larunbata eguerdi eta gaua irekita.  
Txotxa ere bai.

**Enkarguz**

Oialume bidea 57 - 20115 Astigarraga - 943 333 333

**ERRIOGUARDA-ENEA**  
J A T E T X E A

**ASTEARTEA, ekainak 9, IREKITA**

Kartaz eta eguneroko menuaz gain, plater bat eta postrea, plater konbinatuak eta janaria etxera eramateko aukera.

Iturriaga kalea, 10. Hernani  
Tel: (943) 33 02 91

**ME**  
MARTUTENE  
Lanbide Eskola

**Oinarrizko Lanbide Heziketa**

**ELEKTRIZITATEA  
ELEKTRONIKA**

**INFORMATIKA  
KOMUNIKAZIOAK**

**AURREMATRIKULA**  
2020.06.01 - 2020.06.19

943 46 01 45 / 610 787 001  
info@fpmartutene.org  
fpmartutene.org

EGURALDIA

**GAUR** Udazken iburako eguraldia ekarriko digu, tenperaturak behera egingo du, haizea zakar ibiliko da eta giro euriatsua izango dugu. Zerua lainotuta egongo da egun osoan. **Min.14° / Max.19°**

BIHAR

Bihar bustitik jarraituko du ipar partean. Goizean euria egingo du, hala ere arratsaldean atertzera joko du. Orokorrean, tenperaturak berdin jarraituko du, freskotik. **Min.13° / Max.19°**

(euskalet) ARGITARATZAILEA

**DOBERA**  
EUSKARA  
ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko  
Udala

Astigarragako Udala

Ereñotzuko  
Auzo Udala

GOIZUTAKO  
UDALA

ARANOKO  
UDALA

**TAXIAK:** 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622  
**AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korroa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Etxebeste** Elkano, 9 (Hernani) **943 552087** **Gauz:** **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL GOBIERNUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

Basque Government

Basque Government

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

## Elkar laguntza eta ikasketa saioak, merkatari eta tabernarientzat

Hernaniko Udalak, Berriak merkatari elkartearekin batera, elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu, Hernaniko merkatari eta ostalariei laguntzeko asmoarekin.

HERNANI UDALA

Elkar laguntza eta elkar ikasketa saioak antolatu ditu Hernaniko Udalak, Berriak merkatari elkartearekin elkarlanean, Hernaniko merkatari eta tabernarientzat bideratuta. Saioak doakoak direla jakinarazi du udalak, eta «elkartekoak izan edo ez, parte hartzeko aukera dago».

Hernaniko Udalaren arabera, Esparru sozioekonomikoaren eraldaketaren testuinguruan, Hernaniko merkatariak eta ostalariak, «egoera berrian hobe eta ahalmen haundiagoz kokatzeko bidelaguntza zein elkar ikasketa eremuen bidegiletza proposatzen da». Berrizetik eta elkarlanean aritzetik, «indartu eta aktibatze bidea» hain zuzen.

**Helburuak**

Hainbat helburu ditu proiektu honek, hala nola, egoera berriarako indartzeko aldagaiak aztertu eta jorratzea, taldean; elkar laguntzarako eremua indartzea, «erresilientzia arazoei aurre egiteko ahalmena areago-

«Saioak eguerdiko 14:15etatik, arratsaldeko 16:00etara bitartean izango dira, eta gehienez 15 pertsonak har dezakete parte»

tzeko»; eta ikuspegi berritzailea trebatu, norbere eta sektorearen balioen indartze ikuspegian.

Hori dela eta, helburu hauek betetze aldera, hainbat saio antolatu ditu Udalak, eta saio hauek landuko ditu Aran Erasun *coach* eta trebatzaileak (Harrago Aholkularitza), ekainean hasi eta urte amaitu arte, «ekaina, irailean eta azaroan» zehazki. Iraileko eta azaroko saioen informazioa aurrerago emango du Udalak.

**Ekaineko saioak:**

**'Berrikuntzarako mapa'**

Ekainean, *Berrikuntzarako mapa* saioa egingo da, bertan, Hernani-

merkataritzaren eta ostalaritzaren aukera, mehatxuen, indarguneen eta ahulguneen azterketatik, hobekuntza eta garapenerako bideak elkarlanean sortuko dira. Gero, berrikuntza ikuspegitik, ahalmen mapa hedatuko dute, eta azkenik, irekiera faseko mugimenduari, «arreta jarri eta elkar eutsi».

**Zoom plataforma bidezko saioak**

Zoom plataforma bidez eskainiko dira aipatutako saioak, eta udalak jakinarazi du, azalpenaren aurretik, gonbidapen lotura emango zaiola parte hartzaileei. Datorren astelehenean izango da lehen saioa, euskeraz, eguerdiko 14:15etatik 16:00etara bitartean, eta gehienez 15 pertsonak hartu dezakete parte bertan.

«Zoom plataforma bidez eskainiko dira aipatutako saioak»

Datorren asteazkenean berriaz, gaztelaniazko saioa eskainiko da, ordu berean, hau da, eguerdiko 14:15etatik arratsaldeko 16:00etara. Eta saio honetan ere, gehienez 15 pertsona egon ahal izango dira.

Parte hartzeko, atzo amaitu zen izena emateko epea. **K**

## Ereñotzuko auzo udalaren bulegoa, irekita

EREÑOTZU AUZO UDALA

Asteartean ireki zen lehenengoz Ereñotzuko auzo udaleko bulegoa Covid-19ak eragindako pandemiaren geroztik. Eta gaur ere irekita egongo da, izan ere, astean bi egunetan irekiko dute, astearte eta ostegunetan, goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00ak arte. Gainontzeko egunetan telefonoz nahiz posta elektronikoko bidez bermatuko da auzotarrenganako arreta zerbitzua. Eta telefono bidezko arreta zerbitzua 9:00etatik 16:00etara bermatuko da. Hemen telefonoa 943 55 10 00 eta postara elektronikoa: [ereinotzu@ereinotzu.eus](mailto:ereinotzu@ereinotzu.eus).

## Bihar, arratsaldeko 19:30etan antzerkia

HERNANI KULTURA ONLINE

Bihar arratsaldeko 19:30etan, antzerkia online ikusteko aukera egongo da, Vito Rogadoren eskutik.

**Eskelak**

Eskelak ilunabarreko 19:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

† **VICTOR MAIZCURRENA AGUIRREZABALA**

Atzo hil zen, 91 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Haren emaztea: Kontxi Ayerza; seme-alabak: Kontxi eta Bixente Flores, Jasone eta Jose Mari Loinaz; bilobak: Leire, Andrea eta Imanol; anai-arrebak (†), ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusua eta gainerako ahaideak.

Eskerrak eman nahi dizkiezuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zaretzen guztioi eta jakinarazten dizuegu azken agurra bere familia artean egingo dela.

Astigarragan, 2020ko ekainaren 4an

† **ANGEL ARRIET ORELLA**

(M<sup>re</sup> Dolores Azpirozaren alarguna)

Atzo hil zen, 88 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkazioa hartuta

- Goian bego -

Seme-alabak: Miren eta Ander, Begoña eta Joxe (†), Arantxa, Edorta eta Leire; bilobak: Iker eta Arantza, Iñigo eta Jone, Antton, Maddalen eta Urko, Maia, Lorea; anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak eta gainerako ahaideak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizue eta arren etor zaitzela **GAUR, OSTEGUNA**, arratsaldeko **ZAZPIETAN, Hernaniko SAN JOAN BATAIATZAILEAREN** parroki elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

Hernanin, 2020ko ekainaren 4an

OHARRA: Gorputza Hernaniko VASCONGADA EHORIZKETA TANATORIOAN egongo da eguerdiko 11:30ak arte.

**IRAGARKI MERKEAK**

**Etxebizitza bat alokagai.** Bi gela ditu eta dena kanpokaldera. **Deitu: 619 81 33 57 Iñigo Royo Masajista.** Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**

ESPECIALISTAS EN MARISCOS



**MARISCOS HERNANI**

Javier Justiti  
609 674 344

Kale Nagusia, 20 - 2020 Hernani  
943 555 156  
mariscos hernani

**JAMER TABERNA**

**BIHAR**  
irekiko ditugu ateak

**EGIN ZURE ERRESERBA**

MENUA ETA KARTA

943 33 08 58  
Astelehen eta asteartean itxita

JASOTA  
BEZALA

Autun argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

## Kale katuak

Oso tristea da kalean katu abandonatuak edo kaletarrak ikustea, eta oso gizatiarra da, guxtienez, jaten ematea, baina, egia esan, ekintza horrek arazo batzuk dakartza berekin, osasun publikoarentzat kaltegarriak izan daitezkeenak.

Animalia horiek kaleetan ugaritzeak eta bide publikoan jaten emateak, debekatuta egoteaz gain, zikinkeria, usainak eta eragozpenak eragiten dizkie bizilagunei, arratoiak, labezomorroak edo intsektuak erakartzen ditu, eta animalia horien hiri-kokalekua sustatzen du.

Hori dela eta, ordenatzen "hondakinak eremu publikoetan botatzea edo botatzea" debekatzeko duela gogorarazi dute.

Garrantzitsua da gogoratzea katuek gaixotasun hauek trans-

miti ditzaketela:

Campylobacter-ek eragindako infekzioa, katu-harramazkak eragindako infekzioa, Errabia Rickettsia ricketts-ek eragindako infekzioa. Katuei laguntzeko, lehenik eta behin kaletik kendu beharko genituzke.

Hasi albaitaritzako esku-hartzeak, hala nola, desparasitazioak.

Emeak esterilizatzea edo arrak zikiratzea. Horrela, ohatzeak etengabe jaiotzea ekidin ez ezik, kopulan edo lurralde-borroketan transmititzen diren gaixotasunak prebenitzen ditugu, felinozko immunoeskasia bezain larriak.

Andoainen, MIAUKA elkar-teak katuen koloniak finkatzeko eta kontrolatzeko kanpainak egiten ditu, katuek esteriliza-

tzea eta arrak zikiratzea barne, eta horiei buruzko informazioa jasotzea merezi du. Neurri horiek kaleko katuak egoera hobean egotea lortzen dugu.

Egunero begiratzeko eta guggan konfiantza izateak osasun-afekzio arinak tratatzeko aukera ere ematen digu, jakina, betiere albaitariaren gomendioei jarraituz.

Katuak zaindu eta elikatu nahi badituzu, zure etxera eramant ditzakezu, garbitu, parasi-toak kendu, txertoak, esterilizak eta jarri duzun etxolan utzi, babes daitezzen eta inori enbarazurik egin ez diezaioten.

**Ion Azpiazu Goñi**